

EKINNEk urtebete bete du hiriko ekintzailtza **nodo gisa lankidetzaren aldeko apustuan**

- *Lehen urtean, Ekintzaileei Arreta Emateko Bulegoaren bitartez 229 proiektu berritzaile babestu dira.*
- *Ekintzaileatzaren ekosistemako eragileentzako plataforma bihurtu da EKINN. Lankidetzari esker, EKINN nodoa lehen urtean eraikinetik igarotako 5500 pertsona baino gehiagorentzako topalekua izan da.*

EKINN Donostiako Berrikuntza eta Ekintzailtzarako Nodoak urtebete bete du donostiarren eskura, eta ekosistemako eragileen arteko lankidetzaren aldeko apustua egin du. Apustu hori Donostia Sustapenak hartutako konpromisoaren erantzuna da: hiriko ekonomia eta enplegua sustatzeko proiektu ekintzaileen garapena bultzatzea. Lankidetzari esker, 5500 pertsona baino gehiagok bisitatu dute hiriko erreferentzia gunehori, eta konexiorako plataforma bihurtu dute EKINN.

Lehen urteko balantzea egiterakoan, Ekonomia eta Tokiko Enplegu zinegotzi Ane Oyarbidek zera nabarmendu du: "espazio hurbil eta ireki honek 4.500 m² ditu eta hiriko erdiguneari bertan dago kokatua, San Bartolome gainean. Bertan, udal sozietateak ekintzaileen esku jarritako baliabide guztiak biltzen dira, eta osoko laguntza pertsonalizatua eskaintzen zaie: informazioa eta orientazioa, prestakuntza espezifikoa, aholkularitza, laguntza ekonomikoak, lanerako gunek eta promozioa eta ikusgarritasuna. EKINNEk tokiko talentu gazteari ere etxebizitzarako sarbidea erraztu nahi dio".

Gaur egun EKINNEen eskaintako ekintzailtza arreta eta orientazio zerbitzuak hurbilak eta pertsonalak dira. Ireki zenetik, 952 pertsonari eta 229 proiektuari eman zaie babesa, bai eta aholkularitza ere, ohiko ekintzailtzean zein ekintzailtze berritzailean. Donostia Sustapenak hirian ekintzailtzearen alde egindako apustua indartu egin da azken 3 urteetan, urteko inbertsioa bikoiztuz, urtean bi milioi euro baino gehiagorekin, eta 2015etik 15 milioi euro ingurura igoz. Apustu tinkoa eta denboran zehar iraun duena.

Bestalde, Iñigo Olaizola Donostia Sustapeneko zuzendari gerentearentzat, "hiriguneko ekipamendu hau ekosistemako eragile estrategikoen arteko lankidetzaren aldeko apustu garbia da, gure hiria proiektu berritzaileak garatzeko eta talentua erakartzeko plataforma gisa indartzeko, bai tokikoa, bai nazioartekoa. Eraikinaren eta ekipamenduaren ereduak da, eta erabilera desberdinak planteatzen ditu, prestakuntzaren erronkari, aukera eta proiektu profesionalen garapenari eta etxebizitzaren erronkari heltzeko, gure hiria erakargarri egiteko funtsezko elementu gisa. EKINNEk erantzun eta eskalatu daitekeen eredu bat eskaintzen digu, herritarrentzat eta eragile estrategikoentzat erreferente izatea bilatzen duena eta kokatuta dagoen hiri-ingurunea dinamizatzeko eta eraldatzeko puntu bat ere sortzen duena. Hiria egiteko modu berri bat da".

EKINNen jarduerak 4 ardatz estrategiko izan ditu oinarri lehen urte honetan:

TALENTUA GARATZEA

365 egunetan zehar, ekintzaitzari lotutako jakin-mina zuten 1500 pertsona igaro dira bertatik. Donostia Sustapenak ekintzaitzari eta berrikuntzari lotutako sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta gaitasun tekniko zein pertsonalen aldeko apustua egin du, eta lankidetzari esker izan da hori, prestakuntza zentroen eta unibertsitateen laguntza izan baitu.

Aipatzekoa da 21 Mintegi Trinko egin izana eta 650 ikasle inguruk parte hartu izana. EHUrekin eta Tecnunekin; eta LHko zentro Nazaret, Ceinpro, AEG eta Easo Politeknikoarekin lankidetzan egin dira mintegiak.

PROIEKTUAK BIZKORTZEA ETA AREAGOTZEA

Proiektu berritzaileak bizkortze aldera prestatutako zerbitzuei dagokienez, EKINN+ programaren bidez, 20 proiekturi esleitu zitzaaien mentorea 2024an. % 55 IKT eta Industria 4.0 sektoreetako enpresa proiektuak izan ziren, eta % 15, Biozientzia sektorekoak. Parte hartutako proiektuen erdiak baino gehiagok 35 urte baino gutxiagoko emakumeak izan zituen lider. Gainera, EKINN+ Osasuna edo EKINN+ Gastro sektore programen etxe bihurtu da EKINN.

Aldi berean, 100 startupek baino gehiagok osatutako komunitate aktiboaren plataforma bihurtu da, eta prestakuntza eta mentoretza eskaini zaie haiei, gaur egun ekintzaileek gainditu beharreko 3 erronka handiei hobeto aurre egiteko: lehen bezeroa lortzea, inbertsioa lortzea eta talentua antzeman eta fidelizatzea.

Azpimarragarria da Elkargi bezalako erakunde nabarmenekin egindako lankidetzak, Berme Funtza programarekin, adibidez. Aurten, 4 eragiketa burutu dira, eta 555.000 €-ko finantzaketa eman da, iaz baino 185.000 € gehiago.

PLATAFORMA ETA KONEXIOA

Berrikuntza eta ekintzaitza ekosistemako erakunde estrategikoekin, bertakoak zein nazioartekoak izan, lankidetzak eta konexioak indartzea gakoa izan da EKINNen izaera, hau da, gune irekia eta topalekua izatea, babesteko.

Urtebetean, EKINNek 1880 pertsona jaso ditu, dela Donostia Sustapeneko edo gunea baliatu nahi izan duten erakundeetako ekitaldietara joan direlako, dela kudeaketa ereduak ezagutu nahi izan duten nazioarteko ordezkariak parte zirelako. Gunean, Adegiko Ekintzaitza Foroak, Tecnalia Venturesek, Berri Upek, Aspegik, Biogipuzkoak, Tkenikak edo Tech-Connectek eta beste hainbestek antolatutako ekitaldiak jaso ditu.

EKINN ereduak, gainera, hainbat berrikuntza ekosistemen interesa piztu du, hala nola Malagan, Lisboan, Bolonian edo Espoon, Finlandian. Lehen 365 egunetan, bertako, estatu mailako eta nazioarteko erakunde ugariaren bisitak izan ditu hala nola Eurocities sarearena, eta

erakunde haiekin etorkizuneko lankidetzak garatzen ari dira dagoeneko berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arloan.

TALENTUA JASOTZEA ETA ERAKARTZEA

Talent House eraikineko 80 bizitegiez gain, eraikin berriak 70 gehiago ditu, eta, beraz, 150 bizitegiko eskaintza dago. Horrela, Sustapen Sozietatearen Talentua Erakarri eta Ostatatzeko Plana indartu egin da. EKINNeN ostaturik dagoen pertsonaren profilak joera ekintzaileagoa du; Talent Housen, berriz, profil horiek zientifikoagoak izaten jarraituko dute. EKINNeN egoitza-eskaintza 2024. urtean zehar gaitzen joan da, modu mailakatuan, eta urtearen amaieran amaitu da erabateko egokitzapena. Dagoeneko 100 pertsona inguruk hartu dute ostatu; horietatik % 58 atzerritarrak dira eta batez beste urte erdiko egonaldia izan dute.

Gaur egun, EKINNeN Talent Egonaldiak programari esker, ekimen ekintzaileak dituzten bertako gazteak ere bizi dira bertan, 2 urtera arteko txandakako alokairu hobaridunarekin. Horrela, gazteek aukera dute beren proiektu profesional eta pertsonala Donostian garatzeko.

2025 honetarako, EKINNeN helburu nagusia hirian ekintzailetza eta berrikuntzarako gune erreferente gisa sendotzea da. Horretarako, apustu hauek egingo ditu:

- Nazioarteko proiektu ekintzaileen erakarpina indartzea
- Tokiko talentu ekintzailea fidelizatzea, Tokiko Gazte Egoitzen programaren bidez
- Ikastetxeekiko lankidetzak indartzea, ekintzailetzaren esparruan bokazio berriak sortzeko
- Laguntza-ibilbide pertsonalizatuak indartzea, zerbitzuak, prestakuntza eta laguntza espezializatuak dituzten ekintzailetza-proiektuak hazteko.
- Ekintzailetzarekin lotutako eragileekin lankidetzan aritzeko eta kontrastatzeko espazioak proposatzea, eskainitako zerbitzuak eta programak hobetzeko.
- Elkartzeko eta konektatzeko guneak sortzea

Hiri mailako proiektu honen aldeko apustuak erantzuna ematen dio Donostia Sustapenaren strategiari: talentu ekintzailea garatzea eta erakartzea, proiektu berritzaileak bizkortzea, kultura ekintzailea garatzearen aldeko apustua egitea eta, bereziki, hirian eragina duten aukerak eta proiektu berriak ekarriko dituzten konexio eta lankidetzak espazioak sortzea. Izan ere, "Donostian proiektu bakoitzak axola du". Informazio gehiago nahi izanez gero, www.ekinn.fomentosansebastian.eu/eu/ webgunea bisitatu daiteke.